

# IKTailerrak

## Tux Typing Tux Painting Pixton for fun

2. edizioa  
ostiraletan

Eibarko Udalak teknologia berrien ikastaroa antolatu du lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzat eta **ostiral arratsaldeetan** izango dira. Tux Typing joku erraz baten bidez mekanografia landuko dugu. Tux painting marrazkiak lantzeko tresna eta Pixton for fun komiki tira eratzeko tresna ikusgarriak dira.

**Tramitatzailea:** Euskara-Kultura

**Hartzaileak:** lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailako haurrentzat.

**Taldeak:** 2 talde.

(Ordutegia matrikula orrian aukeratu)

**Ikastaroaren prezioa:** 7€ (Eibarren erroldatuak)  
14€ (Eibartik kanpokoak)

**Ikastaroaren ordainketa:** matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Nork emango du:** UEU Eibar

**Non eta noiz:** Haur Liburutegia. Portalea.

**Datak:** martxoak 1, 8 eta 15eko ostiralak  
17:00etatik 18:00etara ; 18:00etatik 19:00etara.

**Ikasle kopurua:** gutxienez 8 ikasle eta gehienez 16 ikasle

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskeraz.

**Eskaera egiteko epea:**

2013ko otsailaren 18tik 26ra (biak barne)

### Aurkeztu beharreko agiriak:

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.net](http://www.eibar.net), eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

**NAN** dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

### Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.net](http://www.eibar.net)), **2013ko otsailaren 27an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2013ko otsailaren 27an 14:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiakin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio. Bi zerrenda egongo dira, ordutegi bakoitzeko bat. Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zerrenda bakoitzeko zenbaki bakar bat ateratzen da. Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horren jarraian dauden zenbakiak dituztenak izango dira ikastarorako aukeratuak plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egingo da **2013ko otsailaren 28tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

**Oharrak:** Talde batean matrikularako izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldean izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldearen ikasle-kopuruz osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikituz.

**Informazio gehiago:** 943 708 437